

€uroexit

Britania Handian, ekainean egin zen erreferendumean, ezaguna denez, Europar Batasunetik irtetea irabazle atera zen. Nahiz eta prozesua nola bukatuko den ezeguna izan, argi dago posible dela herrialde bat EBtik ateratzea. Azpimarratzekoa da moneta subiranotasuna (libera eta Ingalaterrako Bankua) abantaila handia dela, prozesua asko erraztuz.

Posible al da herrialde batek Eurozona (eta Euroa) alde batera uztea? Beren garapenerako gomendagarria izango litzateke? Honen inguruan itxi ez den eztabaida luzea eman da. Eurozonan sartzea norabide bakarrek bide moduan planifikatu zen, itzulerarik gabekoa, herrialdeek moneta eta kanbio politika Europar Banku Zentralaren (EBZ) menpe utziz. Gainera, 2007ko krisia hasi zenean, EBZren austeritatea gero eta gehiago nabaritu zen, bere helburuak betetzeko. Horrela, herrialdeek moneta debalutzeko erreminta galdu zuten, lehiatzeko bideak mugatuz. Herrialdeek aplikatu zituzten neurriak zergak eta soldatak murriztea izan ziren, hots, barne debaluazioa, beste tresnak (moneta eta kanbio politika) ez baitzeuden euren esku. Ondorioz, EBZk inposatutako austeritatearen aurrean erabat mugatuta daude, oso era labur batean azalduta.



Endika Alabort Amundarain

EKONOMIALARIA

@autogestia

Posible al da herrialde batek Eurozona alde batera uztea? Euroan sartzea norabide bakarrek bide moduan planifikatu zen, itzulerarik gabekoa, herrialdeek moneta eta kanbio politika EBZren menpe utziz

Krisiaren ondorioak sufritzen ari garen heinean, egoera hau gainditzeko zenbait adituk Hegoaldeko herrientzat Eurotik irtetea beharrezkoa dela proposatzen dute (M. Weisbrot, J. Sapir, C. Lapavitsas, beste batzuen artean): Herrialdeek Moneta Batasuna apurtu

dezatela, alde bakarrek irteera jarraitzea. *Research on Money and Finance* ekonomista politikoen sarearen iritziz, herrialde zordunek ez lukete zorra ordaindu behar, aldi berean Eurozona alde batera utziz eta zor-publikoaren herri auditoretzak eginez. Horrela barne moneta politika berreskuratuko lukete, krisia arinago gaindituz.

Baina proposamen horiek alde ilunak dituzte, Eurotik irtetearekin eszeptikoak direnek azpimarratu duten bezala (M. Husson, M. Etxezarreta, D. Albaracín eta Ó. Onaran, beste batzuen artean). Zer gertatuko litzateke herrialde hauen zorrarekin? Ziurrenik Eurotan egongo dela, arazoa dena. Gainera, aditu hauek azpimarratzen dute Europako periferiaren arazoa ez datorrela Euroaren eskutik, baizik eta finantza, ekoizpen eta kanpo merkataritzan duten dependentziaz. Arazoa dela subiranotasuna berriro nola berreskuratu, eta ez moneta politika nominala berriro berreskuratzea.

Eztabaida oso sakona izan da; hitz hauen helburu apala gurean azalaraztea da, ahal den neurrian, eztabaida piztea. Azken finean, beste herrialde bat horrelako bidegurutze batean aurkituko da. Eta aukera ez da batera erraza. ■

ARGIA 2017ko egutegia

**Ez beldurrik izan datorrenari...
eskatu orain 2017ko ARGIAren egutegia
eta irailean eskuratuko duzu**

© 943 371 545 · www.argia.eu/denda · denda@argia.eu



Egutegia

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

50€